



4 ELKARRIZKETA

Etkezaretan harategia, 50 urte lanean

Duela 50 urte Etkezaretan harategiak bere ateak ireki zituen. Orduan Joakin Etkezaretak eta Lierni Etxeberrira haren emazteak egiten zuten lan bertan. Egun Lierniz gain, Xabier semea eta hainbat langile daude harategian. Haiekin hitz egin dugu urte hauetaz guztietaz eta beste hainbat gai buruz. Xabier semeak dioenez, oraindik ama da "harategiaren motorra" eta etorkizuna ere izan dezake "etxeko harategiak".

5 SORGIN JAIAK

Sorgin Jaiak badatoz!

Hemen dira San Pedro Jaiak. Bi aste besterik ez dira falta eta aste honetan Sorgin Jaietako lagunek haien egitaraua aurkeztu dute. Lasarte-Oriako erdigunea lau egunez, ekainaren 27tik 30era, sorgindua izango dute eta horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte. Berrikuntzan artean, truke azoka izango da ekainaren 30ean. Honetaz gain, aurreko koadrilak eta blusak omenduko dituzte.



Asteazkeneko elkartu dira langileak udaletxe aurrean euren protesta egiteko, hauetan herritarren eta erabiltzaileen elkartasuna jaso izan dute.

Gaur sinatuko dute hitzarmena

Atsotakarreko langileek bost aste iraun duen greba amaitu dute

Atsotakar zahar egoitzako langileak pozik daude protestek izandako eraginarekin. Dena ondo bidean, gaur sinatuko du CLECEK Aldundiak proposatutako hitzarmena. Honi esker, langileek euren soldatak mantendu eta lan baldintzetan "txikiak baina garrantzitsuak diren hobekuntzak" izango dituzte. Langileen ordezkariak eskerak eman nahi izan ditu greba aste hauetan herritarren jasotako elkartasunagatik.

Bost aste eman dituzte Atsotakar zahar egoitzako langileek greba mugagabeen. Euren protestak kalera atera dituzte denbora honetan eta Montse Gomez langileen ordezkariak azaldu moduan, "eskertzekoa izan da herritarren aldetik jasotako berotasuna eta elkartasuna".

Adineko egoitzetako langileen lan hitzarmena eskatuz deitu zuten grebara sindika-

tuek. Gipuzkoan guztira hiru mila langile baino gehiago ari dira egoitza hauetan lanean eta grebak jarraipen zabala izan du.

Atsotakarren kasuan zerbitzu minimoak bete dira aste hauetan eta langileek txandaka egin ahal izan dituzte lan uzteak. Herriko zahar egoitzako langileek euren protestak kalera atera dituzte, Udaletxe aurrean eta zahar egoitzaren

aurrean ere elkarretaratzeak burutu dituzte, manifestaldiak asteazkenetan eta Okendo plazan akanpadak ostegunetan. Udalarekin bildu ziren eta udalak egoerari irtenbidea emateko saiakera ere egin duela azpimarratu du Montsek.

Aldundiaren proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiak luzatutako proposamena sinatuko du gaur enpresak.

Honen arabera, langileen soldatei 2012ko KPlaren igoeira egingo zaie eta datorren urtean 2013ari dagokiona. Horretaz gain, Madrilen onartutako erreforma ez aplikatzeko konpromisoa hartzen da datozen urteetan ere lan hitzarmen hau mantenduz.

Lan baldintzei dagokionez Montsek azaldu moduan,

"orain arte urte beteko eszedentzia eskubidea genuen eta orain hiru urtekoa izango dugu eta aipatzekoa da ere, urteko lehenengo baja %100 kobratzen izango dela eta bigarrena soldataren %80arekin".

Langileak oso pozik daude "esperientziak ere asko batu gaitu talde bezala eta egindako guztiak zerbaiterako balio izan duela ikustea benetan pozgarria da guretzat".

Hala ere, "lan hitzarmena sinatu gabe 11 egoitzetako langileak geratuko dira eta euren babestuko dituguz datozen egunotan egingo diren mobilizazioetan parte hartuz".

Guztira Gipuzkoako 37 zahar egoitzetan iritsi dira akordioa sinatzera.

UDAN ERE EMAN EUSKARA ELKARRI



ikasi euskara
eman izena **aek-n**
Azeriako ofizialak eta Mula homologatuak www.aek.org

aek-k

hitza ematen dizu
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzula

munterri
euskaltegia **aek**

- 100 orduko klaseak, uztaila-iraila
- Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA)
- Euskalduntzeko maila guztiak
- Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org
www.munterri.blogspot.com.es

Neure kabuz



Mailu Arruti

Nazioarteko egunak

Zertarako balio dute? Nork asmatzen ditu? Non dago egun horien erregistroa? Non egiten dira proposamenak? Nork ematen die oniritzia? Itxura denez, egunak bezain balioak den Nazio Batuen Erakundeak ematen omen ditu. Galde-tu al digute inoiz? Galdetzea exijitzen dut. (Orain modan jarri da).

Kategoria bat baino gehiago dago. Nazioarteko eguna, mundu mailakoa, Europa mailakoa e.a.

Asko eta askok gaixotasunei egiten die erreferentzi. Gehienek hondamen-diak eta desgraziak gogora ekartzen diz-kigute, baina xelebrequeri batzuk ere aurkitu ditut.

Martxoak 20: Loguraren mundu mailako eguna; Apirilak 1: Lanean dibertitzearen nazioarteko eguna; Apirilak 4: Zonbi harrotasunaren eguna; Maiatzak 12: Enpresa txiki eta ertainen Europa mailako eguna; Azaroak 30: Ezer ez erosteko nazioarteko eguna

Egutegi berri bat sortu da, eta ez gara enteratu! Eta gu oraindik santu eta santak ospatzen. Aaa!!!

Proposamen batzuk: Autodetermi-nazio eskubidearen nazioarteko eguna. Ustelkeria aritutako politikoak espe-teratzeko mundu mailako eguna. Epai-le justuen nazioarteko eguna. Balkoietako poltsa urdinen Gipuzkoa mailako eguna.

Berdintu gertatzen da kale eta herrietako txokoen izenak jartzerakoan. Lasarte-Oria galdetu berri digute. Hau ere azaleko kontua dirudien arren, oso garrantzitsua da nire iritziz. Gauza horiek hor geratzen dira (inork aldatu ezean.) Sarritan jotzen da toponimo-eta eta herrietan historiako idazteko modua da leku izenena. Zenbat urtean izan da gure Kale Nagusia Jeneral Mola kalea? Gizartearen ispilu izaten dira baita genero ikuspegik ere. Zenbat emakume kale izen dauzkagu gure herrian?

Inoiz berriz galdetuko baligute, badituzte proposamenak: Euskaldun berrien plaza, etxekoandrei monumen-tua, emakume bortxatuen kale-kantoi-a, preso politikoan etorbidea, desjabetuen auzoa, etorkinen apartakalea, gosearen ibilbidea, langabetuen industrialdea, konponbidearen autopista.

Zorion agurrak



Naiara

Zorionak printzesa! Bost muxu handi aitatxo eta amatxoren partetik.



Aintzane

Kaixo sorgina! Urtek aurrera dijua, espero det txintxua izatia hemendik aurrera, muxu handi bat zure familian partetik!



Markel

Zorionak txapeldun! Dagoeneko sei urte. Muxu pila Lucia, aita-txo eta amatxoren partetik.



Aimar

Zorionak Aimar zure 4 urtetxoengatik, muxu handi bat familia guz-tiaren partetik. Ondo pasa zure egunean.



Aitor

Zorionak! Zuregatik ez dira urteak igaro edo? Ttakuneko guz-tien partetik.



Ariane

Zorionak sorgina! Ondo pasa zure egu-nean! Lau muxu handi zuretzat! Katixa, aita eta amaren partetik!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Juan XXIII kalean garajea alokatzen da. Hilean 60 euro. Harremanetarako deitu 943 363 524 edo 648 614 769 zembakira.
- Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oria erdigunean. Merke. 687 271 288
- Bizi naizen pisua konpartitu nahi dut. Zentroan dago, argisua da, bi gela ditu eta balkoi handia. Animatu! 647 884 278 Pilar

Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 -tan. (Ohea du) 630032779
- Umeentzako aulki bat salgai egoera onean. Maclaren Techno-xt markakoa. Erosten duenari egurrezko seaska bat oparituko nioko. 687 965 454.

Lan-eskaintzak

- Ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Harremanetarako, 647 821 361.

Lan-eskariak

- Lan bila nabil, interna edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Neska arduratsuak lana bilatzen du, interna

moduan edo orduka. Harremanetarako, 602 504 188.

- Neska arduratsuak lana behar du. Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintza. Harremanetarako, 606 642 187.
- Neska arduratsuak garbiketa lanak, haurrak edo pertsona helduak zainduko lituzke. Harremanetarako, 628 232 293.
- Lizentziatu gaztea klase partikularrak eman-go lituzke. Maila guztiak. Lanbide hezkuntza eta Unibertsitatea (Arkitekura). Marrazki teknikoak, geometria deskriptiboa, Autocad, matematika, fisika, lengoia eta literatura. Ordu-tegi malgua. 606 260 711.
- Emakume eskaintzen da orduka lan egiteko arratsalde, gauz edota asteburuetan haur edota zaharren zaintza lanetan edo garbiketant. Harremanetarako 696 279 625
- Adinduk zainduko nituzke, interna edo orduka. Harremanetarako, 638 372 872

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Nora Paino Nuñez, ekainaren 8an.
- Maddi Etxebeste Rojo, maiatzaren 22an.

Heriotzak

- Juanito Marañoñ Barriuso, ekainaren 6an, 89 urte zituela.
- Jacinto Isidoro Lopez Lopez, ekainaren 6an, 76 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 14 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 15 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 16 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 17 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 18 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 19 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 20 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaitezgi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA
UDAL A

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñba, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

Udala FEMEP-etik kanpo

Ohiko batzarrean Federación Española de Municipios y Provincias-etik ateratzea erabaki zuten

Ekaineko ohiko udalbatzarra ospatu zen asteartean. Alderdiak 12 puntu eztabaidatu zituzten. Hauetako bitan mozioak aurrera ateratzeko alkatearen kalitatezko bozka beharrezkoa izan zen, FEMEPetik ateratzeko proposamenean eta Bandera espainola ezartzearen inposaketaren aurkakoan hain zuten.

Maider AZURMENDI

Lasarte-Oriako Udalak FEMEPeko bazkide osoa izateari uzteko proposamena jarri zuen mahai gainean lehenengo puntu bezala udal gobernua. Federación Española de Municipios y Provincias-etik ateratzeko identifikatzea aipatu zuen alkateak "ez gara honetan ordezkatuta sentitzen" eta bestetik dirua, "ez dugu honetan gastatuko".

PSE-EEK urteko kuotarena aitzaki hutsala zela leporatu zion alkateari "diru laguntzetan gehiago jaso izan da". Bozkatzean berdinketa gertatu zen PSE eta PP kontra bozkatuta, Bildu eta EAJ alde eta LOPH ekoen abstentzioarekin. Alkateak kalitatezko botoa erabili zuen erabakia onartzeko.

Ondoren, Udalaren irudi korporatibo berrian aldaketa bat gauzatzeko proposamena egin zen baina alderdiek ez zuten onartu. Udala-Ayuntamiento beharrean, Udala soilik agertzeko eskaerak EAJ eta Bilduren babesia izan zuten.

Amnesty International-ek aurkeztutako mozioak ez eztabaidatu ziren: lehenengoa heriotza zigorra Japonian eta Hakamada Iwaoren kasua bozkatu zuten alderdiek. Ondoren, Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko hainbat

herrialdetan duela bi urte geroztik martxan den udaberri arabiarraren inguruko ere irakurri eta bozka berdinekin, aurrera ateratu zuten.

Zahar egoitzak

LAB-ek aurkeztutako mozioan, zahar egoitza eta eguneko zentroetako langileen egoerari buruzkoan, Aldundiari eskatu zaien bere gain hartzea zerbitzuaren ardura, lan hitzarmenaren gain adostasuna lortu, ADEGLri ere Aldundiaren aurka jarritako salaketa kentzeko eskatu zaien eta azkenik, zerbitzu publiko on baten alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko. Alde bozkatu zuten PSE, LOPH eta Bildu, kontra berriz PP eta EAJ-k.

Ana Prietok zahar egoitzetako langileen egoeraren aurrean elkartasuna eskatu eta adierazi zuen, bereziki Atsopakarekoekin. Bilduren aldetik, Gorka Lizarragak aipatu zuen Aldundia lanean ari dela gatazka honi irteera emateko.

Egoitzetatik, hondakinen kudeaketara salto egin zen. Lasarte-Oria Zero Zaborrek aurkeztutako mozioa ez zen eztabaidatu. Honen aurrean EAJk aurkeztutako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integralari buruzkoa izan zen bozkatu zena.

Lasarte-Oriako Udalar



Azken hilebeteetako pleno luzeena izan zen asteartean ospatu zena.

Konpromezu etokia hartzeko, eta konpromezu hau bete dadin honako neurriak hartzeko eskatzen zion taldeak: "Murrizketa: Ahal bezain hondakin kopuru txikiena sortzeko ekintzak aztertu eta martxan jarri. Birziklaketa: Ahal den azkarren, sortutako hondakinak gaika biltzeko sistemen artean emaitza onenak ematen dituztenak ezarri, helburu bezala birziklatze tasa handienak ezarri gutxienez % 70, zeinak objektiboki erraz ondorioztatu daitezkeen inguruko herrietara begiratu, irizpide teknikoak bakarrik kontuan hartuz. Herritarren parte hartzea bultzatuko da".

Bozkatutako eta aurrera ateratuko ordea EAJk aurkeztutako izan zen. "Lasarte-Oriako udalak, herritarrei, birziklapenaren aldeko apostua egitea eskatzen zaien. Zaborren gestio integralaren katea, prebentzioa, birziklapena eta konpostea eta balorizazio energetikoa dela berretsita eta materia organikoak jasotzeko,

5. edukiontzia aldea apustu garbia egiten du aipatu diren neurriak implementatuz".

Talde sozialistak, Gesto por la Paz-i buruzko mozioa aurkeztu zuen urte hauetan bakearen alde egindako lana aitortuz eta eskertuz. Honako aurrera ateratu zen Bildu eta LOPH -en abstentzioarekin.

Langabetuak pleguetan

Ondoren udal pleguetan balorazio irizpide gisa herrian erroldatutako langabetuen kontratazioa ezartzearen gaia eztabaidatu zuten. LOPHek proposamena mahai gainean uztea eskatu zuen honako baldintza kontratuetan sartzea ilegala ote den zalantza dagoelako udal teknikarien artean. Kontsulta egin da eta erantzuna edukitzean eztabaidatuko dutela adostu zuten.

Eta PSE-EEK KZgunea sareko proiektuari buruzko mozioan eskatu zuenez, Eusko Jaurlaritzak zerbitzuan murrizketak egin ditu eta udalari eskatu zion zerbitzuaren alde

egin eta Jaurlaritzari adieraztea KZgunea mantentzeko beharra. Hau aurrera ateratu zen EAJren kontrako bozkekin izan ere, Jaurlaritzak egitasmoaren eraldaketa bat egiten ari dela azpimarratu zuen Alkortak.

Espainiako bandera

Bildu eta EAJk Espainiako bandera Udaletzeko balkoian jartzeko inposaketaren aurrean mozioa aurkeztu zuten. Hau onartzeko alkateak kalitatezko bozka erabili zuen bigarenez. Erabakiaren aurka duten iritzia azaltzeko eskubidea aldarrikatu zuten bi alderdiek, PP eta PSE-EEK legea onartzeko dagoela azpimarratu zuten.

Azken mozioa EAJk aurkeztu zuen, Txingudi Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan sartzearen aldekoa. Onartu zen PSE, PP eta EAJren aldeko bozkekin.

Gai zerrenda luzearen azken puntua galdera eta erreguak izan ziren eta herritarrek hitza hartu zuten hondakinen inguruan hainbat kezka plazaratu.

"Arretarekin egin dezagun parkea!" ekimena martxan

Alaiz Mendizabal Partehartze eta Nerea Sanchez Hirigintza zinegotziek aurkeztu zuten Tximistarreta plazan herritarren artean gauzatzeko den "Arretarekin egin dezagun parkea!" egitasmoa.

"Lasarte-Orian eraiki diren etxebizitzekin batera, plaza eta kale berriak ere sortu dira eta espazio publiko guzti hauen diseinua betidanik maila teknikoan bakarrik landu da" esan zuen Nerea Sanchezek.

Tximistarreta gunearen izena herritarren parte-hartze bidez aukeratu zen eta "hirigintzan herritarren hasiera izan zen. Kontuan hartu behar da espazioaren eraikuntza eta diseinuak erabiltzaileen bizitzan garrantzia dutela".

Udalak orain arteko ereduari buelta eman nahi dio eta espazioak herritarren beharretara egokitu. Horregatik, herritarrekin nahiz ezaugarri ezberdinetako taldeekin gaia landu eta Tximistarreta gunearen inguruko iritzia, ideiak eta proposamenak jaso nahi dira.

Prozesuaren parte izango diren taldeak aurkeztu zituen Alaiz Mendizabalek, bertako bizilagunak, jubilatuen etxeko ordezkariak, Gaztelekuan ibiltzen diren gazteak, Sasoea-Zumaburuko ikasleak, Sasoea-Zumaburuko guraso elkarte guraso eta haurrak, Andrejoakinako Haur Eskolako haurrak, Jalgune elkarte kideak eta ingurumenaren arloan ibiltzen diren elkarte ezberdinak.



Egitasmoaren aurkezpenaren herritar taldeetako ordezkariak parte hartu zuten.

Hauekin batera "herritarrei zuzendutako talde bat egotea beharrezkoa dela iruditzen zaigu eta lasarteoriatar orori parte-hartzeko gonbita luzatu nahi diegu".

Prozesua

Taldeek, banaka, ekaina bukaera eta uztaila hasiera bitartean inguruaren behaketa egingo dute. Ondoren, talde bakoitzak aukeratutako bi

ordezkariekin elkartzeko da Udala eta erabilpenaren inguruko ordubeteko elkarrizketa bat egingo zaie.

Elkarrizketak bukatzean, informazioa txukunduko da irailean prozesuarekin jarraitu eta amaitzeko. Udako oporetatik bueltan, talde bakoitzeko bi-hiru pertonekin talde zabalago bat osatuko da eta honek erabilera gune ezberdinak proposatu eta proposamenak lehenetsi beharko ditu.

Lehen hitzordua uztailaren 4ean izango da 18:00etatik 19:00etara Tximistarretako plazan. Herriko beste talderen batek parte hartu nahi izango balu, kontaktuan jartzea eskatzen da 943-376181 telefonoan edo partehartzea@lasarte-oria.org helbidean.

Xabier Etxezarreta eta Lierni Etxeberria Harakinak

“Ama da harategiaren motorra”

50 urte bete ditu ekainean Etxezarreta harategiak Hipodromo kalean ireki zutenetik

Duela 50 urte ireki zuen Hipodromo kalean harategia Nuarbe-ko Joakin Etxezarretak, bere bikote Lierni Etxeberria segurarraren laguntzarekin eta leku berean jarraitzen du zabalik gaur egun. Orain, ama-semeek eramaten dute Etxezarreta harategia. Xabier semeak dioenez, oraindik ama da “harategiaren motorra”. Bera 15 bat urte zituenetik ari da harakin moduan, Tolosan eta Villabonan, lehenengo, eta aita gaixotu zutenetik “etxeko” harategian.

Jon ALTUNA IZA

Bezeroek 50 urte haue-
tan izan duten fidelta-
suna eskertzeko,
erosketak egiteko poltsa eta
ardo botila bana emango die
datozen asteotan Etxezarreta
harategiak. Lierni Etxeberriak
esan digunez, lan asko egin du
50 urte hauean, horretarako
gogoia izan da hainbeste
urtean irauteko sekretua, baina
ez du penarik. Esperientzia
oso ona izan dela dio.

Beti leku berean egon al da harategia?

Lierni: Bai. Semeak hartu due-
nez gero, kanpoko langileak
izan ditugu. Aurretik, gu biok
moldatzen ginen. Senarrak
zabaldu zuen harategia, nik
lagunduta.

Non ikasi zuen ofizioa?

Xabier: Anaiarekin Donostiako
Bretxan ikasi zuen soldadutza-
tik bueltatu zenean eta gero
bere kontura jarri zen hemen.
Aurretik okina ere izan zen.

Lierni, zer egiten zenuen, zuk?

L: Batez ere zerbitzen ibiltzen
nintzen, inor baino gehiago.

Zuk Xabi zer gogoratzen duzu txikitako harategiaz?

X: Asko gogoratzen naiz. Esan
daiteke hor jaio nintzela. Txiki
txikitatik hortxe ibiltzen nin-
tzen jolasean. Gero aitari
laguntzen. Lehen dena hiltzen
zen, ganadu handiak Lasarteko
hiltegia eta untxiak, oilaskoak,
arkumeak... harategian.
Nik kutxiloa sartu eta berak
mamitu edo larrutu.

Berezitasunik ba al zuen harategiak?

L: Ez, orduan, 20 harategi
izango ginen herrian.

X: Eta oso giro ona zegoen
harakinen artean, hilean behin
afaria egiten zuten elkarteak.

L: Beraiek bai, baina andre eta
guzti, urtean behin egiten
genuen.

X: Eguberriaren arkumea zen-
baten saldu denen artean ados-
ten zuten, oso giro ona izaten
zuten. Gero supermerkatuak
ireki eta harakin berriak has-
tean puskatu egin zen hori.

Zuek bertan hazitako zekorrek saltzen dituzue...

X: Bai, beti. Orain, etiketatuta
ematen dugu Label-ean sartu
ginelako, baina, aitak beti
hemen inguruko haragia sal-
tzen zuen.

L: Azpeitiko feria gustukoa
zuen eta handik ganadu asko
ekarri du.

Noiztik saltzen dira Telleriko Pedro Arteagaren txekorrek Etxezarretan?

X: Lehen, Pedro Arteagak Justo
harategira eramaten zuen eta
hark itxi zuenean hasi zen
gurekin lanean. Duela hiruz-
palau urte. Ondo moldatzen
gara berarekin. Goieritik ere
ekartzen dugu. Harategian
dabilen mutiletakoa baten aita
harakina da Ordizian eta
ganadu asko hartzen duenean
erdi bana egiten dugu.

Asko aldatu al dira harategiak?

X: Bai, lehen haragia saltzen
zen. Orain, haragia, txarkute-
ria eta batez ere jaki prestatua.
Badakizu zein garaitan bizi
garen. %200ean eta janaria
prestatzeko denborarik gabe
dabil jendea. Harategian pre-
statzen dugu dena.

Lehen txorizo eta beste egingo ziren, ezta?

L: Bai, txorizoak, odolkiak, tri-
pakiak garbitu... Lehen orain
baino lan gehiago egiten zen
harategian. Orain tripakiak
garbituta datoz eta freskorik ia
ez da saltzen. Egosi egin behar
dira saltzeko.

X: Bai zera! orain lan gehiago
egiten da. Lehen freskoan sal-
tzen zen eta orain prestatu
egin behar. Hiru lagun ari dira
sukaldean lanean.

Belarjale asko dago... gubxitu al da kontsumoa?

X: Haragia ondo saltzen da.
Orain, beste kantitate batzuek,
pixtak gutxiago eramaten dute.
L: Ez da horrelako bajoirik
samatu. Egindako haragia asko
saltzen da.

X: Harategien boom-a ere
egon zen, ia 40 izan ginen
herrian. Hori gehiegi zen.
Gero, jakina, supermerkatu
handiek gauza onik ez dute
ekartzen herrira, niretzako.



Bi garai harategiaren atean: Xabier Etxezarreta, orain, ama eta seme alabekin eta duela zenbat urte ama eta arrebarekin.

Nolako harremana izan duzue bezeroekin?

X: Oso ona. Zorionez bezero
oso onak ditugu. Lasarteko
bezeroa eraman erraza da.

L: Ireki genuenean hasitako
jendea oraindik badaukagu.
Bat berezia, berak ere ezkon-
du zutenetik 50 urte betetzen
ditu eta. Gogo handiarekin
dago. Ezkondu zenean hasi
zen gurera etortzen. Lehengo
egunean aditu zuenean 50
urte ospatzen genituela esan
zuen: Nik ere bai. 50 urte
daramatza etortzen.

Zuek ere ospatu beharko duzue?

X: Asteburutik hasita hiru
astetan San Pedrotara bitar-
tean, bezero guztiei banatuko
diegu erosketak poltsa eta ardo
botila bat hainbeste urtean
izandako konfidantzaengatik.
Poltsa oso eroso da, erabili
ondoren bildu egiten da.

Zein da hainbeste urtean irautearen meritua edo arrazoia?

L: Gogoa, lanerako gogoa,
gustatzea. Beti gustatu izan
zait gauza berriak ateratzea...

Eraberritu gabe ez dago etorkizunik?

X: Bai, harategia hiru aldiz
berritu dugu, eta orain ere
zerbait egiteko asmotan gabil-
tza. Lokal txikia da, baina
lekua behar dugu.

Bezeroei ere galdetu
beharko zaie ea nolatan ago-
antatu duten hainbeste den-

boran. Guk esatea erraza da.

L: Harategirik zaharrena gare-
la uste dut. Inguruan pila bat
ginen eta gu geratzen gara.

X: Ojala beste 50 urtean segi-
tzea, guk agian ez baina gure
atzetik datozenek.

Bitxikeriak gertatuko ziren bezeroekin? Kontutxoren bat ba al duzue?

L: Arazorik ez dugu izan ino-
rekin. Behin, ezkondu gabe
geundela, esan zidaten
“¿dónde está tu padre?” Hori
ez zait ahazten. Bederatzi
urteko diferentzia genuen,
berak zaharragoaren itxura
zuen.

Lehen bi eta orain talde handia zaudete lanean.

X: Bai. Baina ikusi egin behar
da nola dauden lehengo kar-
nizeroak. Jota daude, oker
oker eginda.

Gu beste txip batekin ari
gara, gehiago disfrutatze-
ko gogoarekin. Orain ikusten
dut, nire seme-alabekin goza-
tzen ari naizena, aitak ez du
gozatu.

L: Gizonak ez, baina ni den-
era joaten nintzen umeekin.
Lanera umeekin, festara ere
umeekin, joan behar duten
lekura umeekin... udan opo-
rretara ere, ni bakarrik joango
nintzen, bera ez zen joaten
baina, ni umeekin. Berak ez
zuen agian asko disfrutatu,
baina nik bai.

X: Lehen aita eta ama ziren
bakarrik eta orain lau langile

mostradorean eta beste lau
sukaldean, hiru eta laguntzai-
lea. Zazpi gara nominan.
Oraindik ama da motorea.

L: Jada ez daukat obligaziorik,
oporretara nahi dudanean
joaten naiz.

Debozioa badut, baina
obligaziorik ez.

**Zer da gehiena gustatzen zai-
zuen ofizioarena?**

X: Jende pila batekin izaten
dela harremana. Askori ez
zaie mostradorea gustatzen.
Niri, aldiriz, bai. Nik nahiago
hori mamitzea baino.

L: Ni orain ez naiz egoten,
bezeroek jende berria ikusten
dute, baina barrutik ateratzen
banaiz, esaten dute: “hara,
banangoen ba ni, oraindik
hemen dago” poza ematen
die zu ikustek.

Mutilek esaten didate noi-
zean behin ateratzeko mostra-
dorera. Ikusteko han nagoela,
jende berriarekin pixka bat
atzera egiten dute eta. Horrek
poza ematen du.

Niri despatxoa eta kozina
ere gustatu zait. Saltsera izan
naiz beti. Aspaldi hasi nintzen
albondigak, tripakiak egiten.
Sukalde berezia jarri aurretik
egiten nituen, baina ez zen
legezkoa eta beti beldurrez.

Seme alabek jarraituko al dute?

X: Gustatzen zaie. 10 urteko
mutilari, bere kabuz gauza
errazak egitea gustatzen zaio
eta 6 urteko neska txikia
sukalderako saltsera dator,
amona bezala. Erdi jolasean
ibiltzen dira.

San Pedro jaiak ate joka

Sorgin Jaiek egitaraua aurkeztu zuten. Aurten blusa eta koadrilak dira omenduak

Bi aste besterik ez dira geratzen San Pedro Jaiei hasiera emateko. Lehengo astean egitarau ofizialaren nondik norakoak jakin bagenituen, aste honetan Sorgin Jaietako gazteen txanda izan da. Herriarentzat eta herriak egindako jaiek "blusak eta koadrilak omenduko ditu aurten. Koadrilen jaitsiera, Oriako jaitsiera, bakailao txapelketa, kontzertuak, askariak... denetarik izango da aurten ere Sorgin gunean.

Nerea EIZAGIRRE

San Pedro jaietan, Ekainaren 27tik 30era, Okendo plaza eta bere inguruak berriro ere sorginduak egongo dira. Lau egunez Sorgin Jaiek egitarau nagusien alternatiba bilakatuko dira. Sorgin Jaietako lagunek asteazkenean aurkeztu zuten aurten go egitaraua. "Azkenean badatoz! Bai, badatoz Sorgin Jaia! Urtebete pasa dugu une hau itxaroten, eta hilabeteetako prestakuntza ondoren, prest gaude herria berriro edate magikoz sorgintzeko".

Blusak eta koadrilak

Agerraldian, aurtengoa "Blusen urtea" izango dela jakin arazi zuten. Horregatik blusak eta koadrilak omenduko dituzte. "Sorgin jaiek blusarik gabe ez lukete berezkoa duten xarma edukiko. Horregatik, aurten blusak eta koadrilak omendu nahi ditugu; egin duten lana, egiten ari diren lana eta egiteke duten lana eskertzeko; haiei esker lortu baitugu urteetan zehar herria milaka kolorez apaintzea".

Sorgin Jaietako lagunen aburuz, herriaren herriarentzat sorturiko jaiak izanik, festa hauek blusen beharra dute.

Gainera, azken urteetan Sorgin Jaietan parte hartu duten koadrila kopurua handitu dela ere aipatu zuten. "Urteak urtera jai gogoz eta elkarlanean aritzeko prestasun-

nez gerturatzaren blusa-koadrilen kopurua handitzen ari da. Horregatik, sorgindurik dauden lagun taldeak omentzea ezin egokiago iruditu zaigu, izan ere, esker hitzak besterik ez ditugu zuentzat".

Egitaraua

Bestalde, ohiko ekitaldiez gain, berrikuntza ugari egongo direla aurreratu zuten.

Ostegunean, ekainaren 27a, arratsaldeko 20:00etan hasiko da jaiak.

Txupinazoarekin batera, Sorgin gunea irekiko da eta blusa eta koadrilei omenaldia egingo zaie.

Aurretik koadrilen jaitsiera izango da Atsobakar parketiko hasita.

Eta 20:30ean, parrillada ederraz gozatu ahalgo da.

San Pedro bezperan, Herrirak antolatutako bazkaria eta arratsaldean, mikro irekia izango da Kale Nagusian. Honetan edozein herritarrek parte hartu ahalgo du.

Gonbidatuak

San Pedro egunean, berriz, gonbidatuak izango direla aipatu zuten, Lesaka eta Segurako gazteak hain zuzen ere.

Eta hauekin jai egun paregabea igarotzeko, gazte bazkaria, "Berto Saio Mundiala" eta Ginkana poteoa antolatuko dute.

Berto saioan, Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Oier Aizpuru, eta Maddiane Txo-



Sorgin Jaietako lagunek San Pedroetan Sorgin gunean izango den egitaraua aurkeztu zuten.

perena entzuteko aukera izango dela aurreratu zuten.

Eta ginkana poteoa girotzeko herriko Dinbi Banda batukadaren laguntza izango dute.

Bakailao txapelketa

Honetaz gain, azken bi urteetan bezala, igandean, ekainaren 30ean bakailao txapelketa izango da.

Honetan parte hartu nahi duten elkarte eta herritarrek sorginjaiak@gmail.com helbidetan eman dezakete izena.

Txapelketaren ostean, lehiatutako bakailao pintxoak jateko aukera izango da, txakolinaz lagunduta.

Itsaski sorta baten zozketa ere izango da eta hau jasotzeko 20:00ak arteko tartea izango dutela jakitera eman zuten.

Arratsaldean berriz, herriko gazteek gogoz itxaroten duten Oriako jeitsiera izango da. Sorgin gunean, bitartean, mus eta eskoba txapelketak izango dira.

Berrikuntza batzuk ere txertatuko dira arratsalde honetan, batetik truke azoka eta bestetik, argazki proiektzioa.

Truke azokan parte hartu nahi duten herritarrek ekainaren 25 eta 26an haien objektuak eraman behar dute. Trukea egiteko txanpon berezia egongo dela jakitera eman zuten.

Eta Sorgin Guneari itxiera emateko globo gerra izango da.

Ekintza bateratuak

Baina ez dira hauek ekintza bakarrik izango, izan ere, Sorgin Jaiek aurten ere Lasarte-Oriako Udalarekin eta beste elkarteekin lan egin dute San Pedro Jaietako egitarau erakargarria egiteko.

Era honetara, gaueko kontzertuak eta hainbat ekintza bateratu antolatu dira.

Ostegunean Skakeitan, Usain anaiak eta Pistoletak taldeak izango dira Okendo plazan.

Ostiralean, San Pedro bezperan, Ttakun K.E.-k antolatutako Zikiri jana eta ondoren, Gozategi eta karaokea.

San Pedro egunean, berriz, Anai arrebak, Blues Thorpes eta DJ Bull-en saioaz gozatu ahalgo da. Eta sorpresa bat ere iragarri dute.

Eta igandean, Boston Jai taldearen doinuak izango dira.

Eskaerak eta gonbita

Hau guztiaz gain, Sorgin jaietako arduradunek azpimarratu nahi izan zuten, ez direla Sorgin Gunean eraso sexista, arrazista, homofobo eta faxistatik onartuko.

Era berean, eskaera bat egin zieten herritarrei, "gure mundua jaso dugun bezala utzi nahi dugula kontuan edukita, gunea txukun mantentzen lagun dezazuela eskertuko genizueke".

Eta edalontzien berrerabilerena, truke azoka eta ingurumenaren laguntzeko Sorgin gunean egingo diren ekimentera aktiboki parte hartzea deitu zuten.

Azkenik, etxetik urrundaudenak gogoan izan eta herritar guztiei Sorgin gunera hurbiltzeko gonbita egin zieten, "goza dituzagun herriaren herriarentzat sorturiko festa hauek. Sorginduta dago herria, Sorgin Jaia heldu dira!!"



Azken urteetan hainbat koadrila izan dira Sorgin Jaietan lanean eta laguntzen. Horregatik, aurten blusak eta koadrilak izango dira omenduak.

2013ko uda-ikastaroa UDAL EUSKALTEGIAN

Azterketak prestatzeko ikastaroa.

- Astelehenetik ostiralera.
 - 3 orduko ikastaroa (9:30 - 12:30)
 - Prezioa: 96 €
 - Diru-laguntzak badaude.
- Matrikulaldia: Ekainaren 3tik 18ra**
Ikastaroaren iraupena: Uztailaren 1etik 30era



LASARTE-ORIA
UDALA

EUSKARA
EUSKALTEGIA

Bekokale bidea 1
e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
Telf.: 943 361621



LABURRAK.-

IGERIKETA.-

Amaia Andres LOKEko lehendakari berria

LOKE taldeko zuzendaritzak ekainaren 3an egindako Batzar orokorraren ostean, lehendakari aldaketa dagoela jakin arazi du.



Lehendakari berria Amaia Andres LOKE taldeko atletismo entrenatzailea eta atleta olimpikoa da.

Amaiak azaldu digunez, "bi asmo nagusi izango ditu batetik emakumeen kirola sustatu eta bestetik, harrobia lantzea".

Jesus Diez lehendakari-ohiak Kanpo Harremanetako saila eramango duela ere adierazi dute.

Lasarte-Oriako tenis txapelketa uztailean jokatu da

Lasarte-Oriako tenis txapelketa arduradunek berriro ere txapelketaren hasiera data aldatzen dela jakitera eman dute.

"Azken hilabeteetako eguraldi kaxkarrarengatik, hainbat txapelketa atzeratu dira eta dagoeneko batzuk azken fasean egon beharko lirateke. Jokalariak partida gehiegi ez izatearren, txapelketaren hasiera data uztailean 1-era atzeratu dugu," adierazi digute LOKEko tenis saileko lagunek.

Era honetara, txapelketa osoa uztailean jokatzeko asmoa dute. Horretarako, partehartzaila kopurua 40-ra mugatu dutela eta partidak astelehenetik igandera jokatu direla jakin arazi dute.

Ederki Manolo Garcia Sarian

Bihar Lasarte-Oriako XXIV. igeriketa saria izango da kirol igerilekuan

Buruntzaldea IKT-ko Ibarburu, Lizaso eta Esnal ekainaren 1ean, Manolo Garcia probako podiumean izan ziren. Aste honetan, taldeko igerilari guztiak haien onena emango dute Lasarte-Oriako XXIV. txapelketan.

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutuak ekainaren 1ean larunbata Anoetako Paco Yoldi igerilekuan izan ziren Manolo Garcia Sarian parte hartzen. Maila haueko igerilariak gain Nahia Jie Villamediana alebina ere aritu zen.

Ederki egin zuten igeri. Iñigo Ibarburu infantil bere mailako txapelkun izan zen eta Mikel Esnalek absolutu mailan eta Naiara Lizasok infantil mailan txapelkunordetza lortu zuten.

Borja Apeztegia entrenatzaileak jakitera eman duenez, udako denboraldiko azken txapelketak prestatzen ari dira eta txapelketa honetan "marka pertsonal gutxi lortu bagenuen ere, gehienak beren marka onenetatik gertu ibili ziren eta hori positibotzat jotzen dugu".

Podiuma

Era honetara, Buruntzaldea IKT-ko hiru igerilari izan ziren probako podiumean.

Infantil mailan, Iñigo Ibarburu lehenengo izan zen 100 m. libre eta 100 m. tximeleta probetan egindako puntuakertari esker.

Naiara Lizasok berriz, txapelkunordetza eskuratu zuen 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. tximeleta probetako emaitzengatik.

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak aipatu digunez, bi igerilariak Infantilen Udarako Espainiako Txapelketa prestatzen ari dira.

Hauetaz gain, Mikel Esnal absolutuak 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. tximeleta probetan lan ederra egin eta txapelkunorde izan zen. "Ehuneko batengatik bere 50 m. libreko marka berdintzen ikusi genuen, benetan indartsu eta teknikoki oso txukun".

Markak hobetzen

Bestalde, herriko taldeko beste hainbat igerilari ere izan ziren txapelketan eta haien markak hobetu zituzten.

Garazi Alkorta-k igeri egindako bi probetan, 50 m. libre proban eta 100 m. tximeleta proban, lortu zituen marka berriak. "Azken honetan Garazik bere aurreko marka 3 segundutan hobetu zuen," aipatu digu Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak.

Era berean, Haitz Mitxelena bere 100 m. tximeleta marka hobetu zuen, Jone Vazquez-ek 1500 m. librekoa eta Unai Irigoras-ek 200 m. librekoa.

Junior eta Absolutuen Espainiako Udako Txapelketa prestatzen ari den Itsaso Tolosa ere "txukun aritu" zen 50 m. eta 100 m. bizkar probetan. "Podiumean egon ez bazen ere



Manolo Garcia Sarian izan ziren Buruntzaldea IKT-ko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

lehen frogan bigarren sailkatu zen eta lehenengoan nagusi izan zen nabarmen".

Azkenik, arestian aipatu legez, Nahia Jie Villamediana alebinak igerileku luzean estreinaldia egin zuen, 50 m. bizkar proban eta 200 m. librean.

"Nahia Jie Alebinen Udarako Espainiako Txapelketa izango da eta hori prestatu bidean igerileku luzea ezagutzen izan zen eta benetan txukun aritu zen, batez ere esperientzia hartze aldetik. Hala ere egindako bi frogetan ez zen batere makal ibili," adierazi du Borja Apeztegiak.

Lasarte-Oria Saria

Bestalde, bihar, goizeko 10:30etik aurrera Lasarte-Oriako XXIV Igeriketa Saria ospatuko da Udal kiroldegiko igerilekuan.

Buruntzaldea IKT taldeaz gain, aurtengo edizioan infantil, junior eta absolutuetan mailatan

Lagunak, Hernani KE, Zarautz Balea eta Tolosaldea IKT izango dira lehiaketa eta benjamin eta alebinetan, berriz, Hernani KE, Zarautz Balea eta Usurbil.

Igerilekuan proba ezberdinak ikusteko aukera izango da bihar goizean eta lehiaketatik kanpo ere, erreleboen aurretik, 2005ean jaiotek 25 m. libreko erakustaldia egingo dutela jakitera eman dute antolatzaileak.

Buruntzaldea IKT-ko igerilari eta arduradunek herritarrek gonbidatzen dituzte proba ikustera.

Igerilekua itxia

Beraz, Lasarte-Oriako Kirol zerbitzuak igeri txapelketa dela, igerilekua bihar goizeko 09:00etatik 13:00etara erabiltzaileentzako itxia egongo dela jakin arazten du.

Udal Kirol Instalazioetako abonatuak Andoaino, Usurbilgo eta Urrietako Igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.

KIROL AGENDA.-

PILOTA

Larunbata 15

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarrngo pilotalekua, 10:30etik aurrera

Benjamin, alebin, infantil eta beterano mailako partidak.

Igandea 16

SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarrngo pilotalekua, 10:30etik aurrera

Benjamin, alebin, infantil eta beterano mailako partidak.

PALA

Astelehena 17-Asteartea 18

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidibarrngo pilotalekua, 18:30ak eta 19:30ak

ATLETISMOA

Larunbata 15

Durango, 10:30ean eta 16:30ean

LOKEko atletik kadete mailako eta proba konbinatueta Euskadiko txapelketa dute.

Hernani, 18:30ean

Herriko hainbat korrikalari XV. Azei bila herri lasterketan lehiatuko dira.

Igandea 16

Donostia, 10:30ean

Herriko hainbat atletek Igeldoko XXXIII. goiera proban parte hartuko dute.

Hondarribia, 11:00etan

Herriko hainbat atletek I. Hondarribiako bost milak proban parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 15

Kiroldegia, 10:30ean

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak "XXIV Lasarte Saria" parte hartuko dute.

GIMNASTIKA

Igandea 16

Kiroldegia, 11:00etan

LOKEko gimnastek ikasturte bukaerako erakustaldia eskainiko dute.

TRIATLOIA

Larunbata 15

Aritzaleku, Nafarroa, 14:00etan

Herriko hainbat atletek

Aritzalekuko XI. Triatloian parte hartuko dute.

Santurtzi, 17:00etan

Herriko hainbat atletek Santurtziko Triatloian parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Ostirala 14

Michelin, 16:00etan

Ostadar Beltzak-Gure etxea taldeak lagun arteko partida jokatu du Hernaniren aurka.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 08

Zarautz, 9:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko jubentek XXV. Uda Berri Saria proban parte hartuko dute.

Lasarte-Oria, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako infantilak Lasarte-Oriako Saria proban izango dira.



Igandea 16

Biyak Bat elkartea, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek Liernira dute itereara.

Oñati, 16:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek XXVIII. Olakua proban parte hartuko dute.

Agenda

Larunbata 15, 20:00etan, Mendi Kafe-rock



“The Who” gogoan

Portobello project taldeak “The Who” taldearen omenezko kontzertua eskainiko du. Kultur Kale Zikloko ekintza. Indie, Pop eta R&B saiok eskaintzen duen taldeak oraingoan Roger Daltrey, Pete Townshend, John Entwistle eta Keith Moonen 1964ean osatutako rock taldearen doinuak eskainiko ditu. “The Who”-ren jarraitzaileek ederki gozatuko dute emanaldiaz. Kontzertu hau ekainaren 1ean zegoen aurreikusia, baina musikariak istripu txikia izan zuen eta atzeratu behar izan zen.

tutako etxeetako koru roziero ezberdinen emanaldiak eta “Amigos del Sur” taldearen emanaldia izango dira.



Igandea 16, 11:30etik 21:30era

Arantzazuko amaren elizan meza rozieroa “Semblante Rociero” talderen eskutik, Amabirjinaeren erromeria elizatik parkera, gonbidatuei ongi-etorria, Semblante Andaluz elkarteko eta elkarte gonbidatuen taldeen emanaldia, “Alegria de la Sierra” taldearen kontzertua eta Amabirjinari agurra, “Salve Rociera” abestuz.

Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 15, 00:00etan

Miguel Iribarren bakarrizketa umoretsuz gozatzeko aukera.

Lasarte-Oria

Antzerki eta dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 14, 22:30ean

Helduen taldeak “Monsterville” lana eskainiko du eta gazteek, berriz, dantza garaikideko emanaldia.

Larunbata 15, 20:00etan

Antzerki eta dantza asteari amaiera emateko. Gazteen taldeak “Minotaurua” lana eskainiko du eta helduek, berriz, dantza garaikideko ikuskizun ederra.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 14, 20:00etan

Zulo aretoaren inaugurazioa. Hotzikara eta Gaueko Itzalak taldeen kontzertua. Ondoren, 00:00etan, DJ Gatzet-en saioa.



Larunbata 15, 21:00etan

Duo Kie eta Rushblaka entzuteko aukera paregabea. Sarrerak aurretik 12 euro eta egunean 15 euro. Ondoren, 00:00etatik

aurrera, Trifulca Session-ek funk eta hip-hop doinuak eskainiko ditu.

Igandea 16, 19:00etan

Haurrentzako magia ikuskizuna, Rafafa Magoaren eskutik.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 14, 23:45ean

Rock Gaua “Keepsake” eta “Kryzer” taldeen eskutik. Sarrera doan.

Rozioko Erromeria

ATSOKARREKO PARKEA

Larunbata 15, 12:00etatik aurrera

Merche Montes enaldia, gonbidatuei

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA JALGI KAFE ANTZOKIA

Ekainean 7tik aurrera

Alboka Abesbatzaren “25. urteurrena” argazki erakusketaz gozatzeko aukera.

Astigarraga

Musikaren eguna

J. BARANDIARAN PLAZA

Larunbata 15, 9:30etik aurrera

Astigarragako Norberto Amadoz Musika Eskolako XIII. Musika eguna ospatuko du.

Herritarren txokoa

Zabaleta Auzoko afarien zozketa

Zabaletako Jaietan Goiegi jatetxean lau pertsonentzako afaria zozketatu zen. Zenbaki irabazlea, 6257 da.

Zorteko pertsonak hilabeteko epea du, Zabaleta auzolan elkarteko kideekin harremanetan jartzeko.

Soka dantza entseguak

Erketz EDT-k San Juan suan dantzatzeko den soka-dantzako entseguak hasi ditu. Aurten asteartean izango dira entsegu irekiak. Azken entsegu ekainaren 18an da.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokaletan egingo dira guztiak 20:30ean.

Erketz EDT-k gonbita egiten die herritarrei honetan parte hartzeko.

Sorgin dantza entseguak

Urteroko hitzordua iristear da, San Pedro festetan Sorgin Dantzan parte hartzeko entseguak ekaineko astearte eta ostegunetan burutuko dira Landaberri BHIko patioan, 20:00etatik aurrera.

Entseguak irekiak dira eta nahi duten herritar guztiek parte har dezake.

kete bertan. Antolatzaileek herritarren hauetan parte hartzera gonbidatu dituzte.

Danborradako entseguak

San Pedro Jaietan danborradan ateratzeko entseguak hasi dira. Astelehen eta asteazkeneko entseguak Sasoeta-Zumaburu eskolan egingo dira.

Danborrada ekainaren 28an aterako da eta aurrez Goiegin afaria egingo da. Honetan parte hartzeko entseguetan eman beharko da izena.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ordulari bat, bi betaurreko graduatu, txandal baten txaketa, bi mugikor, bi pultsera eta eraztun bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbiltzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Eskutitza

Errausketarik ez, birziklatzeari bai

Lasarte-Oriako errauskailu bat eraikitzearen mehatxupean jarraitzen du. Udal honetan honezkerok EAJ, PSE eta PP alderdiek publikoki hau eraikitzea nahi dutela esan duten arren, uste dugu Lasarte-Oriako herritarren gehiengoak ez duela nahi halakorik.

Bururatzeko zaigun lehen hausnarketa da ea errauskailuaren aldeko alderdi politikok hauek Lasarte-Oriako biztanleen osasunaren alde lan egiten dauden edo errauskailua eraikiko luketen eta kudeatuko luketen enpresen interes ekonomikoak defendatzen dauden.

Bestalde, herri bakoitzean hondakinak gaika biltzeko erabiliko den sistemaren eztabaidaren erdian, bilketa hau eta bere emaitzak, ondoren eman-gozai tratamendutik bereizten saiatzen ari dira, guztiok jakina denean bilketaren eraginkortasunak guztiz baldintzatzen duela azken hau.

Nahastuta jasotako hondakinak kutsadura dakartenez eta herri bakoitzean gaika jasotako hondakinak kutsadura txikiagoa edo handiagoa

izatea eragiten duenez, egoista, bidegabekoa eta ez solidarioa iruditzen zaigu 5. edukiontzia barrikada gisa erabiltzea gaika biltzeko sistema eraginkorragoan aurrean.

5. edukiontzia, kosta ala kosta errauskailu bat eraiki nahi dutenen lubakia bilakatu da. Errauskailu honetarako egin ziren aurreikuspenak orain dela urte batzuk gauditu ziren jada.

Argi dago errauskailu baten mamua hondakinaren eztabaidaren inguruan hegan dabilen bitartean, lubakian sartuta daudenek ezin izango dutela eztabaida honetan modu arrazional batean parte hartu. Hori dela eta, ezinbestekoa da behin betiko errauskailua eraikitzeko proiektua deuseztea.

Hau lortzeko, herritar guztiei dei egiten diegu larunbatean (ekainak 15) Donostiako Bulebarretik 17:30ean atarako den manifestazioan parte hartzera.

ERRAUSKETARIK EZ, EZ HEMEN, EZ INON.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Andaluziar erromeriaren 20. urteurrena

- ▶ Aurten asteburu osoan Rocioko giroa ekarriko dute Atsobakar parkera herriko andaluziarrek
- ▶ Irun, Errenteria, Andoain eta Arrasateko elkarteetako dantza taldeek ere parte hartuko dute

Andaluziako jantzi tipikoak eta herrialde hartako giro alaiak barreiatuko dira asteburuan Lasarte-Oriako kaleetan eta batez ere Atsobakar parkeko zelaietan, bertan ospatuko baitute herriko andaluziarrek eta Semblante Andaluz elkarteek erromeria. Jose Perez Semblante Andaluz elkarteeko presidentek baieztatu digu eguzkia ere ekarriko dutela asteburuan. Aurten asteburu osoa festa izango baita Rocio erromeria hori lehenengo aldiz antolatu zenetik 20 urte bete direla eta. Goiz eta arratsalde hainbat emanaldi eta ospakizun burutuko dira igandera bitartean.

Jon ALTUNA IZA

Atsobakarreko zelaietan bilduko dira asteburuan andaluziarrak. Zaldi eta gurdirik gabe, baina Andaluziako giroa eta beroa ekarriko dute parkera. Denetarik gongo da, Andaluziako produktuak, dantza eta kantuak. Sevillanak kantatu eta dantzatuko dituzte oholztan Gipuzkoako zenbait elkartetako dantzariek eta baita lagunartean ere Lasarte-Orian bizi diren hainbat andaluziarrek. Asko Andaluziako soineko tipikoa jantzita.

Antolatzaileek Atsobakarreko parke ondoan diren Urbileko aparkalekuak erabilteko aholkua luzatu dute.

EGITARAUA Larunbata, ekainak 15

12:00etan hasiko da Erromeria.
12:30ean, Merche Montes-en emanaldia.
17:00etan, Andaluziako Etxeetako abesbatzen saioa.

21:30ean, Amigos del Sur taldearen emanaldia.

Igandea, ekainak 16

11:30ean, Rocio Meza Zumaburuko Aranzazuko Ama elizan, "Semblante Rociero" abesbatzaren partaidetzarekin
12:30ean, Ama Birgina parrokiatik aterato dute Atsobakarrera eramateko.
13:45ean, agintari eta gonbidatuei ohorezko ardoa eskainiko zaie.
16:30ean, Semblante Andaluz eta gonbidatutako beste elkarteetako dantza taldeen emanaldia.
19:30ean, Alegría de la Sierra taldearen saioa.
20:30ean, Erromerian parte hartu dutenen agurra Ama Birginari.
21:30ean Festa amaiera.

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz, Irungo Embrujos, Errenteriako Concha Rociera eta Aljarafé, Andoaingo Triana eta Arrasateko Al-Andalus elkarteek parte hartuko dute.



Sevillanak dantzatuko dituzte Atsobakarrera hurbiltzen direnek.

Jose Perez Semblante Andaluz-eko presidentea

"Eguzkia ekarriko dugu Atsobakarrera"

Asteburuan 20. erromeria ospatuko dute Semblante Andaluz elkarteeko kideek. Horregatik, elkarteak bi eguneko egitaraua antolatu du eta Jose Perez, lehendakariak eman digu horren berri.

Egun bakarreko erromeria motz geratzen al zen?

Ez, ahalegin handia da honelako erromeria antolatzea, eta gutxi iruditzen zitzaigun egun bakar baterako egitea. Gainera negu eta udaberri hain txarra izan dugunez, gogo handia daukagu kanpora ateratzeko.

Horregatik jarri zitzaigun bi egunetako festa antolatzeko gogoia. Eta eguzkia ekarriko dugu, gainera.

Asko aldatu al da, lehenengo aldiz antolatu zenetik?

Garai ezberdinak izan ditu erromeriak. Lehenengo urteak oso onak izan ziren, giro oso atsegin eta kuttuna izan zen, gerora tokiz aldatu zen eta gure ustez plazak ez dira erromeria egiteko tokirik aproposenak. Hobe zelaia jendeak euren mahai eta jatekoak eraman ditzen.



Zenbat lagun elkartzen zarete?

Gure elkartean oso sustraia dagoen festa da, eta denok izango gara bertan. Beste herrietako lagunak ere espero ditugu, Errenteria, Andoain, Arrasate edo Irungoak.

Elkarriketa osoa txintxarri.info webgunean

Kanpoko elkarteek ere parte hartuko dute?

Bai, talde handiak datoz. Denak garai beretsuan sortu ginen, duela 20 urte inguru eta zerbait antolatzen dugunean denok parte hartzen dugu.

Zuk kantatu ere egin beharko duzu erromerian?

Bai, noski, gitarra "astintzen" dugunoi lan horiek ere tokiatzen zaizkigu. Bai guk antolatutako erromerian, bai besteek antolatutakoetan.

Zaldi eta gurdirik izaten al da?

Izan genituen zaldiak lehen urteetan, baina garraioa garestia da. Elkarte sendoa da Semblante Andaluz borondate eta eskuzabaltasunaren aldetik, baina ekonomia alorrean, beste asko bezala, krisian gaude eta ezin diegu gastu handiei aurre egin.

Kasetak jartzen al dituzue?

Bai, Udalaren laguntzari esker, batez ere, kanpotik dantza eta kantu taldeekin datozeneztat. Ume asko etorriko dira eta babesa izan dezaten.

Zenbat andaluziar bizi zarete Lasarte-Orian?

Gutxi gorabehera 400-500 izango gara.

Egitarauari buruz, zerbait nabarmendu nahi al duzu?

Ez, ondo pasa nahi dutenei etortzeko esango nieke, aspaldi klima oso txarra izan dugu, eta bada garaia eguzkiak gozatzeko. Nahi bada bere tortila eta beste jatekoekin, edota, jarriko diren tabernetan Andaluziako produktu tipikoak dastatzera, bestela. Andaluziakoak eta hemengo produktuak ere izango dira, gu jada andaluziarrak eta euskaldunak ere bagara eta.



NOAOA BIDAIK
GRUPO ALMEIDA VIAJES

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943 373 613
noaoabidaiak@almeidaviajes.com
Hipodromo Etorbidea, nº12
20160 Lasarte Oria - Gipuzkoa

**EDOZEIN
ESKAINITZA
HOBETZEN DUGU**

**SAN PEDRO JAIK,
ONDO PASA!!!**

www.noaoabidaiak.com



Bidai haundietan
espezialista